

Poesiaren asteak Moussa eta Raies tunisiarrak ekarriko ditu Bilbora

ERREDAKZIOA. Bilbo.

Amel Moussa, Jamila Al Majri eta Hayet Raies idazle tunisiarrak ekarriko ditu, besteren artean, Poesiaren Asteak Bilbora. Baina ez haiek bakarrik. Euskal Herriko eta atzerriko hainbat sortzailek parte hartuko dute Bilboko Udaleko Kultura Sailak antolatutako ekimenean, hilaren 16tik 22ra. Urtero bezala, Gabriel Arestiren egun instituzionala egingo du Udalak Poesiaren Astearen barruan. Hilaren 16an egingo dute aurten. Edu Zelaieta poetak eta Beñardo Goietxe, Raul Garcia eta Jordi Serra musikariek Mugaldekoak ikuskizuna eskainiko dute Bidebarrieta liburutegian, 19:30ean hasita.

Amel Moussa, Jamila Al Majri eta Hayet Raies poeta tunisiarren txanda izango da hilaren 17an. Beren obra gertutik ezagutzeko aukera emango dute, Bidebarrietan eskainiko duten hitzaldian. Bizkaiko Elkarte Artistikoak solasaldi poetikoa egingo du hilaren 18an, Juan Ramon goiburu hartuta. Soledad Sierrak eta Honorio Cadarsok aurkeztuko dute saioa, eta Adagio bikotearen musika entzun ahal izango da. 20:00etan, gainera, Loquilloren kantuez gozatzeko aukera emango du Poesiaren Asteak. Musikari kataluniarrak kontzertu akustikoa eskainiko du Arriaga antzokian. Zurgai aldizkariaren arduradunek azken zenbakia aurkeztuko dute hilaren 19an, Bidebarrietan. Claudio Rodriguez poeta espainiarrari eskaini diote, eta haren obrari buruz mintzatuko dira Jose Fernandez de la Sota eta Seve Calleja idazleak eta Pablo Langarika Zurgai-ko zuzendaria. Mintzaldia bukatu orduko, Los cauces de la luz izeneko errezitaldia egingo du Orphenica Lyra taldeak, Rodriguezen poemekin. Horretaz gain, poesia zeltari buruzko saioa emango dute hilaren 20an. Kirmen Uribek aurkeztuko du, eta Alan Jamieson poeta eskoziarrak, Xuan Bello poeta asturiarrak eta Flavio gaita jotzaile asturiarrak parte hartuko dute.

POESIA LEHIAKETA. Poeta handiak ekartzeaz gainera, ume bilbotarrek poesia egiteko ahalegina egin dezaten du helburu Poesiaren Asteak. Hala, umeei zuzenduriko poesia lehiaketa antolatu du Udalak, beste behin ere. Hilaren 21ean egingo dute sari banaketa ekitaldia, Areatzan, 12:00etan. Eta arratsaldez Juan Kruz Igerabidek Mailu isila errezitaldia eskainiko du Areatzako karpan. Hilaren 22an bukatuko da Poesiaren Astea. Hainbat poetak beren obrak errezitatuko dituzte, besteak beste, Leire Bilbaok eta Rikardo Arregik.